



BERRIGARA

114. Zenb.


1993, uztailak 2

**HERRIKO
DENDARIAK
BEREN
INTERESEN
ALDEKO
ELKARTEA
SORTU
NAHIAN**

**IGERILEKUEI
BURUZ
BERRIKETAN**

KIROLAK

**BERGARAKO
FUTBOL
TALDEAK
BOST
FITXAJE
BERRI EGIN
DITU**



**SAN
MARTZIALAK**



Eurocasion

AUKERA BAKARRAI


Aukerako ibilgailuen hamabostaldia!!

AUTOMOVILES IONen

- Ekainaren 28tik uztailaren 9ra
- 24 hilabeterarteko europear garantia
- Finantziabide berezia
- Argibideak San Lorentzo poligonoan
- BERGARA

Uztailak 4 IURRETA

EUSKALDUNON JAIA 93



eman arnasa

EUSKALDUNON
Egunkaria-ri

PROTAGONISTAK

LETANIA

350 lagun inguruk (emakumeak gehiago ziren) hartu zuen parte asteazken goizean Santa Marinatik San Martzialera, letania erreztatuz, egindako igoeran.



Goizeko 7^{er}erdietan abiatu eta 8ak inguruan heldu ziren partaideak San Martzialera, ondoren, jendez gainezka zegoen bertako ermitan, Xabier Zubizarreta Santa Marinako parrokoak meza eman zuelarik. Lehengo ohitura bat berreskuratu nahirik Santa Marinako Parrokiko Batzordeak San Martzial egunean bertan erabaki zuen letania

egitea eta benetan arrakastatsua suertatu da, inoiz baino jende gehiago erakarriz. Hala ere, asteazkenean San Martzialen bildutakoek meza ondorengo ohizko txokolatea faltan bota zuten.

Jende ugari asteazkenean letania erreztatzen San Martzialera bidean

ITURRI ONETIK

Aurrekontuak onartuko dira

Asteleheneko Plenoan aurtengo aurrekontuak onartuko dira EAJ eta PSE-EEren aldeko eta EA eta HBren kontrako botoekin. Victoriano Gallastegik azaldu digunez, kantitatea joan den urtekoaren antzerakoa izango da (1.800 milioi pta. inguru). Eusko Alkartasunak kontrako botoa emango du beren hitzetan "gastu publikoak gora egin duelako" eta Herri Batasunak, berriz, osorako enmendakina aurkeztuko du BERRIGARAK jakin izan duenez.

ESAN DUTE

"Bizikletan egin edo beste edozein modutara egin norbere burua ezagutzeko momentu onak dira, aberasteko neurri baten. Bakardadean oraindik sentiberago egoten da bat eta halako aldaketa bat egoten da norberarengan. Ez dago dudarik bidaiak oso onak direla bai norbera ezagutzeko eta bai norbere lagunak eta bidaiakideak ere ezagutzeko, azkenean momentu gogorrek, bakartasun haundikoak pasatzen direlako"

J.M. ELEXPURU
EUSKADI IRRATIA

"Neri lorak botatzen dizkidaten gizon askok ez lukete onartuko beren andrekin pelotan egitea"

REYES AZKOITIA
"BETI ESKAMAK KENTZEN"
ETB

BERRIGARA astekarria
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97 Errotalde
Jauregia, 20.570 Bergara

Argitaratzailea:
Jardun Elkarte. Masterreka, 13
Bergara. ☎ 76 08 19

Babeslea: Bergarako Udala.
Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:

E. Azkarate eta E. Mendibil.

Publizitatea eta harpidetak:
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza.
☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Inaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaien.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,
Estepan Plazaola, M. A.
Elkorobereibar, J. M. Elexpuru, J.
Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N.
Aizelai, A. Lete, J. A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabeitia, Josune Inarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.


Lege gordailua: SS 50/91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA

elektragintza

✓ Motorren bobinak eta
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 beheha
Tfnoa: 76 23 48



Debara XV. Bizikleta Martxan

ingurugiroarekin eta, zehazki, Deba Ibaiaren egoerarekin kezkatu dauden bailarako ekologista ugari hartu zuen parte igandean. Bergaran goizeko 11.45etan bildu ziren eta hemendik Debarainoko ibilbidean beste herrietako "txirrindulari"ekin bat egin zuten. Eguraldiak lagundu zuela esan behar, bero gehitxo egin zuen arren. Deban, orain dela gutxi eskalatzen zebilela istripu baten ondorioz hil zen Bittor Zulaika Eguzki taldeko kide izandakoari omenaldia eskaini zitzaion.

Bestalde, Deba Arroko talde ekologistek Deba Ibaiaren problema nagusia kontaminazioa bera baino gehiago, azken urteetan egiten ari den kanalizazioa dela adierazi zuten.



Mizpirualdera bisita egin zuten joan zen igandean Zezen Zaleak taldekoek. Jaietan antolatutako txekorketa eta entzierroek izan zuten arrakastaren ondoren, Mizpirualdeko egoitzan bizi diren zaharrei bazkaritxo bat eskaintzea bururatu zitzaion Zezen Zaleak taldekoei. Eguerdiko 12.30etan Mizpirualderuntz abiatu ziren txistulari eta guzti. Bazkalostean, oparitxo bana banatu zieten zaharrei eta marko eta guzti apaindutako Pazkuetako txekorketako bi argazki utzi zituzten egoitzan. Ondoren, dantzaldia izan zen. Benetan primeran igaro zutela adierazi diote BERRIGARARI Zezen Zaleakekoek eta, bide batez, Arrondo eta Esparza zinegotzien presentzia eta egoitzako mojen lana eskertu nahi izan dute.



Bergarako Jubilatuek San Martzialen pasatu zuten San Martzial eguna asteazkenean. Goizeko 7.30etan letania erreztatuz 350 bat lagun San Martzialeko ermitaraino igo ziren moduan, jubilatuek goizeko 10.30etan urbanoa hartu eta epa-pasa egitera abiatu ziren San Martzialera. Salda eta txorizoa hartu ondoren meza entzun zuten eta ondoren, jubilatuetako abesbatzaren emanaldia entzun zuten eta jarraian bazkaria izan zuten. Bazkalostean erromeria izan zen Elgetako trikitilariak alaituta eta leher egin arte dantza egin ondoren, arratsaldeko 6.30etan, berriz ere urbanoa hartu eta herrira jeitsi ziren. Igandean jendez bete ziren San Martzialgo zelaiak, baina jubilatuek, eurak festatxoa ospatu zuten asteazkenean.

MAKAILO

Makailau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargarai 15



LASA JATETXEA

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

San Pedro San Martzialak astebukaeran

Asteazkenean egin zen letaniaren igoyerarekin eman zitzaien hasiera aurtengo San Pedro eta San Martzial jaiei.

Astebukaerarako, berriz, hainbat ekitaldi iragarri dira: **Larunbatean**, iluntzeko 8.15etan Seminarioko eleizan Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gaztearen kontzertua izango da. **Igandean**, goizeko 9etan

Gasteizko Dultzainero, Zumarragako Trikitilari, Udal Txistulari Banda eta Los Incansables Txarangarekin alborada izango da eta 10etan San Martzialera Burdi Igoera.

11etan Meza Nagusia eta eguerdiko 12.15etan Xamatx dantza taldeak Berriotxo dantzaren erakustaldia. Ondoren, ohizko aureskua eta ordu 1etan Narbaiza eta Egileorren bertso saioa. Arratsaldeko 6etan Euskal Jokoak, ordu berean Aranzabal orkestararekin erromeria eta gaueko 9etan jeitsiera.



Asteazkenean, San Martzial eguna, 350 bat lagunek hartu zuten parte letanian.

Z ER EGIN UDAN?

Udaren etorrerarekin, ikasketak amaitu eta gero, liburuak alde batera laga eta jolaserako ordua izaten da. Zer egin ez dakizula? Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako Uda Kanpainak 10 baino kirol iharduera gehiago eskaintzen ditu uztailean. Beraz, non aukeratu baduzu.

Aurtengo Uda Kanpainan bi txanda antolatu dira: uztailaren 5etik 18ra lehena eta uztailaren 19tik 30era bigarrena. Lehen txandarako izen emateko epea atzo, osteguna, amaitu zen baina bigarreneko epea zabalik dago oraindik. Plaza gutxi geratzen diren arren, oraindik batzuk geratzen dira.

Udal Kirol Zerbitzuko teknikaria den Iñaki Ugarteburuk emandako datuen arabera, 370 pertsonak eman dute izena orain arte. Lehen txandan 200dik gora pertsonak hartuko dute parte.

Jendeak gehien aukeratu dituen kirolen artean igeriketa aurkitzen da. 3-4 urtekoentzako taldean, esate baterako, hasieran 2 ordutako txandak antolatu baziren ere jendearen erantzuna ikusi eta gero, lau ordutara gehitzea erabaki da. Igeriketarako tokirik ez da geratzen: "kontuta hartu behar da Elorriotik 18 neska-mutiko etorriko direla eta pizinetan ez zaigu tokirik geratzen" adierazi dio BERRIGARARI Iñaki Ugarteburuk.

3 ordutako modulotan emango diren Kirol Askotako Iharduerak

Uda kanpaina martxan

370 lagunek eman dute izena eta 10etik gora kirol iharduera eskaintzen dira



(lehen txandan xakea eta kirol ezberdinak landuko dira eta bigarrenean argazkia eta kirol ezberdinak) ere, arrakasta handia izan dute.

Jendeak aukeratu dituen beste kirol batzuen artean, Seminarioan egingo den patinajea eta Urkulun burutuko den piraguismoa aipatu ditzakegu. Rafftinak eta kañoi jeitsierak ez dute hasieran espero zen eratzun ona izan. Beharbada prezioak baldintzatu du jendearen aukeraketa.



Gaspar
Jatetxea, Txokolategia,
Self Service-a

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

ZINEA



EL CUERPO DEL DELITO

OSTIRALA: 22.30.

LARUNBATA: 17.00, 19.30, 22.30.

IGANDEA: 19.30, 22.15.

ASTELEHENA: 19.30.

Estatu Batuak. 1993. 95'.
Zuzendaria: Uli Edel. Aktoreak: Madonna, Willem Dafoe, Joe Mantegna eta Anne Archer. 18 urtez azpikoentzako ez gomendagarria.

Maddona abeslariak beste eskandalu bat sortarazi du bere azken filmearekin. Dударik ez errentagarritasuna non dagoen badaki eta kritika ezik, takilla ondo portatu da berarekin. *Rebecca Carlson*ek (**Madonna**) harreman sexual oso arriskutsuak (hildako bat tartean) omen ditu eta *Frank Dulaney* (**Willem Dafoe**) Madonna errugabe dela argitzen saitu beharko da.

ERAKUSKETAK

▼ **Benita Gallastegiren Euskal Herriko paisajeak** izenburuko margo erakusketa Nahikarin.

▼ **Argazki zaharren** erakusketa ikusi ahal izango da Jubilatuen Egoitzan astelehenetik aurrera, uztailak 5.

I RTEERA

▼ **Valdezcaray-S. Lorenzo-Valvanera** mendietara irteera iragarri dute Pol-Pol eta Gorla Alpino Taldeak hilaren 11rako. Irteera, goizeko 7etan Frontoian.

O GIA

▼ **Igandea 4:** Mizpildi.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 3:** Estella. Matxiategi, 5 ☎ 76 19 63.
- ▼ **Igandea 4:** Estella. Matxiategi, 5 ☎ 76 19 63.
- ▼ **Astelehena 5:** Mozos. San Pedro, 4 ☎ 76 12 15.
- ▼ **Asteartea 6:** Camacho. Oxirondo, 4 ☎ 76 11 74.
- ▼ **Asteazkena 7:** Puy. Barrenkale, 25 ☎ 76 16 87.
- ▼ **Osteguna 8:** Guallar. San Antonio, 5 ☎ 76 11 05.
- ▼ **Ostirala 9:** Estella. Matxiategi, 5 ☎ 76 19 63.

A UKERAN

▼ **Elgetako Ereserkiaren Aurkezpen Kontzertua** izango da ostiralean gaueko 10.30etan Elgetako frontoian. Bertako Oskarbi abesbatza eta Bergarako Orfeoia eta Orkestra Sinfonikoak saio bana eskainiko dute eta bukatzeko, guztiek bat eginik, himno berria interpretatuko dute. Bestalde, larunbatean, iluntzeko 8.15etan Seminarioko eleizan Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gazteak kontzertua emango dute. Aintzane Aranak zuzentzen duen Orfeoi Gatearen aurkezpen kontzertua izango da.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Azoka Nagusia: Elgetako jaiak astebukaeran

OSTIRALA 2

- 22.30:** Elgetako himnoaren aurkezpen kontzertua: Bergarako Orfeoia eta Orkestra Sinfonikoa eta Elgetako Oskarbi abesbatza.
- 22.30:** Reggae kontzertua: Potato eta Banana Boats.

- 07.00:** Sokamuturra.
- 15.30:** Euskadiko Mendiko Bizikleta Lasterketa (1., 2. eta maila bereziko afizionatuentzat).
- 16.30:** Pelota partiduak: 4 1/2 barruko txapelketako finalak frontoian.
- 23.30:** EGANekin dantzaldia.

LARUNBATA 3

- 07.00:** Sokamuturra.

IGANDEA 4

- 18.30:** Trikitilarien Txapelketa.

GOMENDIOA

Antzuolarra naizenez ez daukat San Martzialera igotzeko ohiturarik eta ez naiz igandean joago. Arrazoi batengatik San Martzialera joango ez zaretenoi beste plan bat proposatzen dizuet. Larunbat gaua primeran pasatzeko El ultimo de la fila rock taldeak Donostian emango duen kontzertura joan zaitezkete. Kontzertu ostean, berriz, Irunera jaietara... Eta igandean, biharamona pasatzeko, hondartzara. Eguraldi ona egingo omen du eta Zarautz edota Saturraraneakoak plaia politak dira eguzkia hartu edota bainutxo bat hartzeko.

Arantzazu MURGIONDO 27 urte



El ultimo de la fila taldearen kontzertua ikustera Donostiara


E GURALDIA

Joxe BADIOLA
"ITXUMENDI"



Astebukaera eguzkitsua

Astian zihar eguraldi kaxkarra izan dogun arren, astebukaerarako hobetu egingo dau. Beraz, asteko txaparradak eta trumoiak desagertu egingo die, ekinaldi txiki bat egin du eta mendebaldeko haizia izan dogu baina eguraldiak saniatuko du. Zapatu goizian behelainua izango da goiz partian, baina egunak aurrera egin ahala hobetu egingo dau. Gainera, Gasteizen bodia daukat eta komeni jat ona eitia... Bromak alde batera lagata, eguraldi ona izango dugu zapatuan. Domeka eguzkitsua agertuko jaku. Eguraldi polita, beraz. San Martzialeko erromerixia ondo pasatzeko.



HARATEGIA
ANTIA
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

Pepelu
Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

LXUKUN
BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

Kanpoko eta barruko igerilekuak

Kanpoko eta barruko igerilekuak direla eta, astekari honetan, 113. zenbakian agertutako eskutitzari erantzuna emateko, zera adierazi nahi dut:

1. Bertan egiten den eskakizunari buruz, hots, bi igerilekuak, bai kanpokoak eta bai barrukoak, zabalik edukitzea, ezinezkoa dela esan beharra dago. Honen arrazoia hau da: erabilpen kolektiboko igerilekuen arautegiak dienez, igerileku bakoitzak (kanpo eta barrukoak) aldagela independenteak eduki behar ditu eta guk ez ditugu.

Osakidetzak uztailean barruko igerilekuak erabiltzen uzten digu, baina Uda Kanpainarako besterik ez.

2. Hamaken kontuari buruz, zerbitzu hori ematen zutenek hasieran egin zen aldaketa egitea eskatu zuten, zerbitzu honek hobeto funtzionatuko zuelakoan. Baina sistema berri honen martxa ikusirik, berriz ere lehengo sistemara bueltatu gara.

3. Azkenik, honi buruz egon daitekeen edozein kezka, kexa,... etab. i erantzuteko, zuzenean guregana jotzera gonbidatzen zaituztet, Irizar Jaurerjian, Udal Kirol Zerbitzuko bulegoetan.

Yosune Linazisoro
Udal Kirol Zerbitzuko
Zuzendaria

Elosuri adarra jo nahian

Badira bi urte Elosuko auzoa eta Bergarako alkatearen artean diferentzia nabarmenak sortu zirela. Hainbat aldiz azaldu dugu arazo honen berri. Elosuarrek hasieratik engainatuak izan garelako, eta noski, zapalduak, irainduak, baztertuak, etabar. Behin eta berriz Elosuko auzoak azaldu du arazo honi konponbide bat emateko borondatea. Udaletxean behin eta berriz izan gara, bai firmak eramanaz, edo gutunak, edota alferrikako bilerak eginaz. Hitz politikak entzun ditugu, bai, baina goitik behera engainatuz. Lau aldiz agindu digu alkateak Elosura etorriko dela arazoa konpondu eta hitz egitera. Azkenik, orain dela lau hilabete esan zigun hamabost egun barru etorriko zela aginduaz. Ulertzen dugu zer gertatzen den: alkate honek berak nahi duena egin behar duela, nahiz eta auzo baten aurka joan.

Orain ere berak nahi duena egiteko asmoarekin zebilen eta berriz esango dugu, burla eginaz: Santutxu aldera bidali zituen Udaletxeko langileak Elosuko festen azken egunean kolunpioak jartzera. Noski, alkatea ez zen agertu festetan; Bildurraz al zaude, Bitoriano? Okerren bat egin al duzu? Elosuarrek nahi ditugu kolunpioak, baina jostailuak ere, baina gauzak behar diren bezala egin behar dira. Toki pribatu batean zerbaiz jartzeko asmoa baldin badago, normala izango litzateke baimena eskatzea aurretik eta horregatik, Bitoriano, zu izan beharko zinateke lehena ejenplua ematen.

Elosuarrek jakin beharko genuke zein proiektu dauden auzorako, baina horretarako auzo eta Udaletxearen arteko tirabirak konpondu behar dira. Elosun premia haundiak ditugu, gero eta biztanle gutxiago, gero eta baztertuago... Elurtean, adibidez, zortzi egun argirik gabe, urik gabe eta bideak mozturik eduki genituen. Non zen gure alkatearen gestioa? Azken bi urteetan 100 metro hormigoigoi eta sei farola jarri dira Elosun. Alkateari jakin erazi nahi genioke elosuarrek ere herriko biztanleak garelako eta herria aurrera ateratzeko politikaren barruan, politika rurala ere sartzen dela. Kolunpioak onartzen ditugu kaleko jendearentzat baina badira aurretik konpondu beharreko arazoak.

Elosuko Jai Batzordea

San Martzial garbiak

San Martzial egunean lagatzen den zabor eta hondakin piloa dela eta zabor boltsak banatzea erabaki dugu aurten. Ekintza honekin jendearen kontzientziarioa eta sentsibilizazioa lortu nahi dugu. Lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkiogu Eroskiri zabor poltsak emateagatik eta salatu beharra daukagu Udaleko Kultura Batzordeari poltsak erosteko 10.000 pza. eskatu ondoren, honen ezetza jasotzea.

Eguzki

Tiira ba!



Josu Okino

Berrigara kiniela

Igandean Donostiako Anoeta pelotalekuan Retegi II.a eta Galarza III.ak jokatuko duten eskuz banakako pelota finalerako kinielak bete ahal izango dituzue ohizko tabernetan: Etxagi, Arrano, Infernukua, Avenida, Antxoni, Erreki, Zernai, Irrintzi, Pol-Pol eta Txuringo. Partidu erdiko eta amaierako emaitzak asmatu beharko dira eta jasotzen danari 56.600 pta.ko botea gehituko zaio.

Gazte txartela

Gazte Txartela atera nahi duten 15 urtetik 25era bitarteko gazteek Udaletxera jo beharko dute, argazki bat eramanez. Informazioa jaso edota izen-ematea Irizar Etxean egin daiteke 15.30etatik 17.30etara.

Herriko dendariak beren elkartea sortzeko bilera egin zuten UNEDen

Asteazkenean herriko 175 dendari inguruk hartu zuen parte komertzianteen elkarte bat sortzeko asmoz UNEDen egindako bileran. Bertan jakin arazi zenez, *"Bergaran superfizie haundi bat [hipermerkatu bat] jarri ahal izateko estudio bat eskatu dute eta gure interesak defendatu beharrean aurkitzen gara, beranduegi izan baino lehen"*. Horrela, komertzianteen sinatutako idatzi bat Udaletxean aurkeztu dute, honelako superfizie baten herriko bizitzan izan dezakeen eragina gogoratuz; *"Frantzia eta Kataluinako kasuak hor daude. Bistan da Frantziako komertzio txikiak jasan dutena: izugarri jeitsi dira komertzio txikiak eta herriko eguneroko bizitzak bizitasun guztia galdu du. Kataluinan ere orain debekatzen ari dira superfizie hauek jartzea. Hemen hori gertatu aurretik be-*



Asteazkeneko bileran, jendez goinezko izan zen UNEDeko aretoa.

har diren ate guztiak jo behar ditugu eta Euskal Gobernua lantzen ari den merkatal legearekin datorkigunarekin kontuz ibili beharko gara, behar den aholkularitza eskatu eta ahal ditugun alegazio guztiak aurkeztuz".

Dendariak Udalak beren interesak kontutan izatea eskatzen dute, *"ordaintzen dugun udal zergen garrantzia eta herrian dugun presentzia kontutan izan dezan."*

Udalak, superfizie hauek bultzatu beharrean, herri barrua bera indartu beharko luke. Horretarako batu egin behar gara guztiok, geure arteko tira-birak abaztuz".

Hemendik 15 bat egunera beste bilera bat egitekotan geratu ziren eta komertzianteen batzorde moduko bat sortzeko asmoa azaldu zuten, bertan gremio bakoitzeko ordezkari bana egongo delarik.

Amet's



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
 Berezano auzoa OÑATI

GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA



**I LEAPAINDEGI MISTOA
 ESTILISTA.**

Artekale 29. Behea
 Hnoa: 76 29 70
 BERGARA

**Emaitza onak
Selektibitatean**

Bergarako Batxilergo Institututik ekaineko selektibitate azterketa egin zuten 80 ikasleetatik (60 euskaraz eta 20 erdaraz), bat ezik, guztiek gainditu dute. Bestalde, 93/94 ikasturtean Batxilergo Institutuan BBB edota UBI burutu nahi duten ikasleek uztailaren 9ra arte egin dezakete matrikula.

**Argazkilari
sartuak**

Jose Luis Feo Pol-Pol Argazki Taldeko kideak lehen saria irabazi du kolorezko kategorian Eskoriatzako Elordui Argazki Elkarteak antolatutako Udaberria 93 lehiaketan. Benito Cantero, berriz, hirugarrena sailkatu da zuribeltzeko kategorian Zumaia Hiria Argazki lehiaketan.

**Ordutegi berria
liburutegian**

Udal liburutegia, uztailean, goizez bakarrik izango da zabalik, 8etatik ordubatera. Oporren ostean, abuztuaren 23an zabalduko da berriz ordutegi berarekin.



Balio ez duten farmakoak farmazietan batu nahi dira.

Farmakoak biltzeko kanpaina

Eguzkik bultzatuta, hondakin solidoak biltzeko sortu da

Eguzki talde ekolojistak, hondakin solidoen bolumenaren arazoa konpontzeko asmoz, etxeko farmakoak besteen artean bereizteko eskakizuna egin du, etxeko zabor poltsetatik hondakindegira heldu ez daitezen. Eguzkik azaltzen duen bezala, *"hiriko hondar solidoen artean botikek pisu eta bolu-menean eragin minimoa dute (% 0,5a inguru) baina, pilekin gertatzen den bezala, hauen eragina toxizitate mailan ez da batere mespretxagarria"*.

Farmazietatik hartutako botike-

tatik % 60a bakarrik erabiltzen da gainontzeko % 40ak zaborrean bukatzen duela. Etxeetan ohiko izaten da jadanik balio ez duten produktu farmakoak edukitzea eta egoera honen aurrean Eguzkik bultzatutako kanpaina bati ekitea nahi dio. Bide on eta efikazena farmazietan ontzi batzuk jartzea dela uste du Eguzkik, toxizitate mailaren arabera, farmazeutikotik berak lehen selekzio bat egin dezan. Azkenik, Eguzkik instituzio inplikatuak beharrezko mediotzat hartuko eskakizuna egin die.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

**MINER
ardak**

Biltegi telefonoa: 76 41 41

**Ardo
onak,
jakina**

**KAILASH
ZENTRO
ESOTERIKOA**

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikan
diplomaturako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)



Gutxitu fisikoei taxian ibiltzeko laguntzak emango zaizkie.

Bono-taxi programa gutxituentzat

Mugitzeko zailtasunak dituztenei zuzenduta

Asteheneneko Plenoan Bergarako Udalak eta Diputazioak bono-taxi izeneko programa aurrera eramateko sinatutako akordioaren berri eman zen. Programa honetan mugitzeko zailtasunak dituzten gutxitu fisikoei parte hartu ahal izango dute, taxian ibiltzeko errezitasunak emango zaizkiela. Aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko interesatuta dauden guztiek Udaleko Ongizate Zerbitzura jo beharko dute informazio eske. Programa hau urri aldera jarriko da martxan eta abendura bitartean

368.000 pta. inguruko kostua izango du, Udalak 92.000 pta. ordaindu beharko duela.

Erregu eta galderetan, Juan Mari Garitano EAKo zinegotziak Santutxu eta Elosuko auzo-alkatearen arazoei buruz galdetu zion alkateari, Victoriano Gallastegik gauza batak bestearekin zerikusirik ez duela adieraziz. EAKo zinegotziak azoka berriaren gaurko egoera ere jakin nahi izan zuen eta alkateak hilabete honetan alderdi guztiekin bildu eta irailerako irtenbide bat eman nahi zaiola aurreratu zuen.

D eredia San Martinen

San Martin de Agirre ikastetxeak 1993/94 ikasturteetik aurrera D eredia (guztia euskaraz) eskeiniko du aurrekolan eta OHoko lehen zikloan. Interesatuak bertara joan edota 762147 telefono zenbakira deituz egin dezakete izen-ematea.

Zentsuaren zerrendak ikusgai

Herritarrei jakin arazten zaie hautesle zentsuaren behin behineko zerrendak 1993-1-1ean Idazkaritzako bulegoetan (Barrenkale 7an) jende aurrean daudela uztailaren 7ra arte, nahi dutenak aztertu eta bidezkoak deritzaten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Gestoren salaketa

Amnistiaren Aldeko Gestorek Guardia Zibilak Alcala eta Valdemoroko espetxeen arteko trasladuan zazpi euskal presori (Mikel Askasibar "Aska" bergararra tartean) emandako jipoiak salatu dituzte. Gestorek "Madrilgo atentuaren mendeku basatitza" jo dituzte jipoi hauek.

ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

HEMEN

edertze aretoa



Martxategi, 36 behea ☎ 76 58 88

ederTu

20 urte zure zerbitzura,
kalitatezko altzariak eskaintzen

Barrenkale, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

POL-POL

Bergarako mendizaleen elkarte

Pol-Polera inguratu eta bertako bazkide diren Maite Irizar eta Txema Arenazarekin berriketal-ditxo bat izan genuen.

Antonio Raizabal, Pedro Marco, Luis Bikuña, Alberto Osinaga, Angel Jauregi, Ignacio Murua-mendiaraz bergararrek eta Manolo Zubia eibartarrak zuten mendizale-tasunari esker sortu zen Pol-Pol mendizale taldea 1942.eko martxoaren 15-ean.

Taldeak, 1926.ean eraiki zen izen bereko iturriari sor dio bere izena.

Lau egoitza ezberdin izan ditu Pol-Polak urte guzti hauetan: 1942.etik 1950.era Ollagorri tabernaren sotoan; 1950.etik 1965.era lehen Artekalen zegoen Pagaldai tabernaren ondoko lokaletan; 1965.etik 1976.era, Komenio kalean San Pedroko parrokiak duen etxearen azkenengo solairuan; eta azkenik, 1976.etik

gaur egunerarte, orain dauden lekuan egokitu ziren.

Hasieratik Pol-Polaren helburua mendizale-tasuna bultzatzea eta zabaltzea izan da. Datuek azaltzen dutenaren arabera helburua lortuaz doaz, bazkide gutxi batzuk izatetik 1.500 bazkide izatera iritsi bait dira.

Pol-Pol mendizale taldeak bost talde edo ekin-tza desberdin ditu bere barnean: mendi irteerak, eskia, eskalada, argazkia eta mendia bizirik.

Mendi irteeretan hiru talde bereizten dira adinaren arabera: gazte-
txoak, gazteak eta na-



Pol-Poleko Zuzendaritza Batzordea.

gusiak. Hiru talde hauek ia urte osoan zehar aritzen dira irteera hauetan. Gazte-
txoak hamabostean behin izaten dute irteera bat, eta irtenaldi hauek azarotik maiatzera irauten dute. Gazteak ere hamabostean behin irtetzen dira, eta hauen irtenaldiek urte osoan zehar irauten dute. Nagusiak

berriz, hilean behin joaten dira, otsailetik azarora luzatzen den denboraldian. Eski taldea da azkenaldian arrakasta gehien izan duen taldea. Adin guztietako jendea aritzen da talde honetan.

Eskalada arloak ere jarraitzaile ugari izan ditu azken bi edo hiru urtetan, eta maila bikaina lortu duten eskaladoreak ere irten dira Bergaran.

Bazkideek ordaintzen duten kuotak ezberdinak dira taldeen arabera. Gazte-
txoek 400 pzt. ordaintzen dute, gazteak 800 pzt. eta azkenik nagusiek 1.500 pzt.

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1942.eko martxoak 15.
BAZKIDEAK: 387.
HELBIDEA: Komenio kalea 1.
PRESIDENTEA: Jon Ander Gantxegi.
ELKARTEAREN EGUNA: Martxoak 15.
URTEKO KUOTA: 400, 800 eta 1.500 pzt.

Etxearen goxotasuna bere barnean dago

San Miguel E. A.

San Lorentzo, 4
 ☎ 76 47 90
 ☎ 76 01 15

Isolatu zeure etxea
 hotz eta zaraten kontra

ISOVER

CAMACHO

Drogeria
 Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8 ☎ 76 28 67 **BERGARA**



Gizon Emakume
 Barrenkale 35 **BERGARA**

BERGARAKO LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

1993-94 IKASTURTEA

MODULO III: MEKANIKAGINTZA "D" EREDUAN (EUSKARAZ).
1.100 ORDU GUZTIRA: 850 KLASE ORDUAK / 250 ORDU ENPRESATAN.

ESKURATZEN DEN TITULAZIOA: TEKNIKARI ESPEZIALIZATUA MEKANIKAN.

SARTZEKO BALDINTZAK:

- B.T.I. eta Zientzia Batxilergoa (Sarrera zuzena).
- U.B.I., L.H. II (Sarrera azterketa).

MATRIKULATZEKO EPEA:

- Uztailaren 1etik 9ra bitartean.
- Irailaren 9tik 13ra bitartean.

ORDUA: 9.30etatik 12.30etara.




ZAPATADENDAK

ALDASORO

**APROBETXATU GURE UDAKO
DESKONTUAK!!**

ZAPATAK • POLTSAK • GERRIKOAK



**JOSUNE LINAZISORO eta
GREGORIO IRURETAGOiena:**

"Gipuzkoako kanpoko igerilekurik onenak ditugu"

Kanpoko igerilekuak zabaldu eta itxi arte mota askotako bisitariak jasotzen ditu. Gazteenek piszinetan bainua hartzeaz aparte, jolastoki ezin hobia dute. Halaber nagusiagoek lanetik irten eta gero hondartza urrun gelditzen denez igerilekuetan eguzkia hartzeko eta bainatzeko toki apropos eta txukuna dute. Kanpoko igerilekuak zabaldu zirenetik, pasa den 19an, batz bestea egunean 614 pertsona izan dira. Guzti hori egoera onean mantetzeko igerilekuek bi arduradun dituzte, alde batetik Gregorio Iruretagoia orain arteko arduraduna eta bestetik, Josune Linazisoro hemendik aurrera bera izango delarik piszinen arduraduna.

- Ze egoeratan daude herriko piszinak?

- Momentu hauetan Osakidetzaren aldetik bedeinkapen guztiak, hilean behin tekniko bat etortzen da, piszinak nola dauden aztertzeraz, horretaz aparte hilean baldiz farmazeutika bat ere etortzen da. Horiek guztiak aztertzen dute, bai uraren egoera eta bai instalazioen higieina.

- Inguruko beste piszina batzurekin konparatuz ze egoeratan daude Agorrosinekoak?

- Uste dugu onenetarikoak direla eta ez dizugu hori esaten gu bertako arduradunak garelako, hori bai kanpoko piszinei buruz ari gara, Gipuzkoa mailan kanpoko igerileku onak daude, baina dudu barik gure herrikoak dira hoberenak. Horiek berdegune eta espazio handia baitute.

- Azkenaldian igerilekuetan konponketa ugari egin dira, zergatik?

- 1992an eta 93an egin diren obrak 1991an hasitako egokitze obraren jarraipena dira, baina urte hartan ez ziren obra guztiak amaitu, ondoren 92an aurreko urtean izandako akats txikiak konpondu genituen eta 93an berdina, beti ere Osakidetzak 1987an atera-ratoko normatibari egokitzeko asmoz. Piszinaren kanpokaldea nahiko ondo dago eta hurrengo pausua barruko egitura (aldagelak, bulegoak etb..) konpontzea izango litzateke; gaia aztertzen gaude baina oraindik ez dakigu noiz hasiko garen obra horiek egiten. Orain ezin dugu bi piszinak barrukoak eta kanpokoak

batera zabaldu, zeren Osakidetzak esaten duenez igerileku bakoitzak bere aldagela propioak izan behar baititu.

- Kanpoko igerilekuak egoera onean daudela esan duzue eta barrukoak?

- Txiki eta zahartuta gelditu dira, eta konpontzeko, gure ustez, piszina horiek bota egin beharko lirarteke eta berriak egin. Barruko piszinek orain aldagela gutxi dituzte, squashean jokatzeko ditugun bi gelak txikiegiak dira, beste gauza garrantzitsu bat konpontzeko daukaguna barruko piszinetako uren garbiketa da. Osakidetzaren araudiaren arabera ur putzu bakoitzak bere ur garbigailu propioa izan behar du eta hori ez da gure piszinan betetzen. Igerilekuan sartzeko sarrerak ere konpondu behar dira, orain kanpokoetara joateko barrukoetatik pasatzea derrigorrezkoa da. Beraz, onena barrukoa bota eta berriak egitea izango litzateke.

- Kexak izaten al dituzue, piszinen funtzionamenduaren inguruan?

- Kexarik garrantzitsuenak "berandu" zabaltzen direla da. Hori kritikatzeko orduan jendeak ez du kontutan hartzen igerilekuak zabaltzeko hainbat gauza egin behar direla eta horretaz aparte eguraldia ere kontutan izan behar da, zeren eguraldi txarra egiten badu ezin dira zabaldu eta noski eguraldia ez dago gure eskuetan. Horrezaz gain badira kritika konstruktibo batzuk eta badira ere, beti denetaz kexatzen diren pertsonak, baina azken hauek gutxienak dira.

- Kuotak merkeak, garestiak edo zer dira?

- Gure ustez merkeak dira, esate baterako urte osorako karnet normal

batek 11.000 pzta balio ditu eta pertsona hori urtean 20 aldiz joaten bada karneta amortizatzen du. Familiarra ere uste dugu, merkea dela, zeren 3 kide baino gehiago dituen familia batek 18 mila pzta inguru ordaindu behar ditu karneta izateko eta hori familiako kideen artean banatzen badugu 4 mila pzta inguru irtetzen zaio kide bakoitzari urte osoan pizinetan erabili ahal izateko.

- Sauna zerbitzua orain itxita dago eta etorkizunean jarraituko al du?

- Kontratua zuenari 17an amaitu zitzaion eta ez du berritzu eta momentuz itxita egongo da beste batek bere ardura hartu arte.

- Ba al dago Agorrosinen kirol konplexu bat egiteko asmorik?

- Orain proiektua lantzen ari gara, baina oraindik ez dago ezer zehazturik. Agorrosinen proiektu nahiko handi bat egiteko asmoa dago, Kirol zerbitzutik instalazio gehiago izateko beharra ere ikusten dugu, zeren tamalgarria da herrian tenis pista bakar bat ez izatea.

- Jende askok uste du

piszinetan arriskua dagoela oinetan infekzioak harrapatzeko...

- Errezena, eta hori medikuek esango dizute, umeez zerbait txarra harrapatzen dutenean oinetan pizinetan izan dela esatea da, eta ez dizut esango portzentairik baina kasu gehienak piszinetatik kanpo hartutakoak izaten dira. Oraindik ez da demostratu Agorrosineko igerilekuetan norbait kutsatu edo gaisotu denik.

- Orain piszina 10etan zabaltzen dira, zergatik?, ezin dira lehenago ireki?

- Duela bi urte 11etan zabaltzen genituen, hemengo langilegoa 7etan hasten da lanean eta ez zuen denborarik ematen lehenago zabaltzeko. Gainera jendeak ez zituen instalakuntzak ondo zaintzen eta lehen esan dudana moduan, duela bi urte kanpaina bat egin genuen jendea kontzientziazteko eta bere fruitiak eman ditu; orain jendea hobeto portatzen da eta horregatik zabaltzen igerilekuak ordubete lehenago.


- Aipatu duzue, jendeak orain lehen baino

portaera hobea duela, baina nahikoa al da piszina behar diren moduan mantentzeko?

- Piszinetako urak oso garbi ez badaude, errezena, umeez pixa egin dutela esatea da, baina nagusi batzuk ere oso zikinak. Normatiba bat dago igerilekura joan baino lehen guztiek dutxatu behar dutela esanez, eta umeez pasatzen dira dutxatik, baina nagusiak ez dakit zer egiten duten. Bestalde, erregelamentuak argi uzten du ezin daitekeela "tiritas"ekin baintu, baina gero putzutik ura husten dugunean "tiritas" mordoxka bat agertzen da regiletan. Horretaz aparte, ikusi behar da 9etan, pizina ixterakoan nola gelditzen den berdegunea, dena zaborraz beteta, eta ez da logikoa zakarrontzi pila bat jarri baititugu.

- Neguan barruko igerilekuak ez al dira txiki gelditu?

- Bai, neguan igerileku horiek eskolakoek, Bergara Igeri Elkartekoek eta abonatuak erabiltzen dituzte eta arazo ugari ditugu eta hori konpontzeko estudio bat egiten ari gara.





IPINTZAKO

NAGUSIENDAKO II. FUTBOL TXAPELKETA

I Taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNTOAK
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurka	Guzt.
1. A ZE FLAXA	4	4	0	0	9	3	8
2. OGIZUN	4	3	0	1	13	4	6
3. PAOK DE SAN JUAN	4	1	1	2	5	7	3
4. AMOZKIBAR	4	0	1	3	4	11	1
5. OS JARDINEIROS	4	0	1	3	4	5	1

FINAL LAURDENETARAKO KLASIFIKATZEN DIRENAK:

1. A ZE FLAXA
2. OGIZUN
3. PAOK DE SAN JUAN

II Taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNTOAK
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurka	Guzt.
1. MONGATXURRA	4	3	0	1	10	8	6
2. ARLOTEAK	4	2	1	1	11	5	5
3. AMILOTX	4	2	1	1	8	6	5
4. SHAKTALE	4	1	2	1	4	6	4
5. OSINTXU	4	0	0	4	5	15	0

FINAL LAURDENETARAKO KLASIFIKATZEN DIRENAK:

1. MONGATXURRA
2. ARLOTEAK
3. AMILOTX eta PIKAPIEDRAS taldeek final laurdenetarako postu bat jokatuko dute gaur.

III Taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNTOAK
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurka	Guzt.
1. BILDURBAREK-LAM	4	3	1	0	14	2	7
2. ALTZASU	4	2	1	1	7	3	5
3. PIKAPIEDRAS	4	2	0	2	7	8	4
4. EZINLEIKE	4	1	2	1	3	5	4
5. NAHIKARI	4	0	0	4	3	18	0

FINAL LAURDENETARAKO KLASIFIKATZEN DIRENAK:

1. BILDURBAREK LAM
2. ALTZASU
3. PIKAPIEDRAS eta AMILOTX taldeek final laurdenetarako postu bat jokatuko dute gaur.

FNAL LAURDENAK

- BILDURBAREK LAM-ALTZASU. Astelehena 19.30.
- ARLOTEAK-MONGATXURRA. Asteartea 19.30.

- OGIZUN-(AMILOTX-PIKAPIEDRASeko irabazlearen aurka) . Asteazkena 19.30.
- A ZE FLAXA-PAOK DE SAN JUAN. Osteguna 19.30.

Beteranoak

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNTUAK
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurka	Guzt.
1. BETI ONA	4	3	0	1	14	7	6
2. OGIZUN	4	2	0	2	6	11	4
3. TXIPIRON	4	1	0	3	9	11	2

EMAITZAK

- BETI ONA-OGIZUN
- TXIPIRON-OGIZUN

5-0
2-3

FINALA

- BETI ONA-OGIZUN. Ostirala (Uztailak 9) 19.30.

KOMENTARIOA



**Bitxor
AGIRREBARRENA**
(Antolaketa
Batzordeko kidea)

"Txapelketa oso parekatua ikusi dut, batez ere bigarren eta hirugarren taldeko ekipoen artean. Faborito nagusiak A Ze Flaxa, Bildurbarek LAM eta Altzasu dira. Gauza bat aipatu nahi dut: jendea partiduak jolastera etorri beharrean arbitroen lana kritikatzera dator eta hori ezin daiteke horrela izan. Jokalariak ezin daitezke ibili arbitroarekin sartzen. Bukatzeko esan, nere ustez txapelketako errebelazioa Paok de San Juan taldea izan dela".

GOLEATZAILEAK

- 4 gol: • I. Etxeberria (Mongatxurra).
• Josu Arana (Bildurbarek LAM).
• Juan Luis Arriola (Arloteak).
- 3 gol: • Manu Diaz (Mongatxurra).
• J.L. Etxaniz (Bildurbarek).
• R. Agirrezabal (Bildurbarek).
• J.M. Alonso (Osintxu).
• Patxi Osa (Pikapiedra).
• I. Unzurrunzaga (A Ze Flaxa).
• Mikel Azkarate (Amilotx).
• Zangitu (Mongatxurra).
• Igor Legazpia (P. de San Juan).



JOSU ARANA



ALTZASU



EZINLEIKE



AMOKIBAR

IPINTZAKO

NAGUSIENDAKO IL FUTBOL TXAPELKETA



FS
oto sistema

APPÉNI

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

**Bergarako igerilekuak gustoko
al dituzu?**



Jesus Mari Reparaz
25 urte, ikaslea

Aurten ez naiz oraindik kanpokoetan egon baina ondo daude. Batzutan jende gehiegi beharbada...



Maitane Uribe
10 urte, ikaslea

Nik primeran pasatzen dut lagunekin. Neretako oso ondo daude.



Esther Viciola
61 urte, etxeakoandra

Orain hasiko naiz joaten eta benetan oso ondo dago guztia, ez daukat inongo kejarik.



Erlantz Zangitu
15 urte, ikaslea

Jende gehiegi egoten da eta pena ez dizutela jolasten uzten. Bestela ondo daude.



LARRAÑAGA

Autogidarien Eskola

Artekale 22
Tfnoa: 76 16 63
BERGARA




**Uda
garaia**

Uda, urte osoan espero dugun garai onenatarikoa iritsi berri zaigu. Batzuk oporretan aurkituko dira, gehienak abuzturarte espero beharko dute, baina nahiz eta hilabete bat besterik ez falta, gure bizimodua aldaketak jasatzen hasia da, irteera gehiago, oporretarako planak eta prestakuntzak direla medio.

Normalean, uztailaren hasierarako nabaritzen da baita ere bizi politikoa etentzen doala, abuztuan guztiz etentzeko. Baina aurten ez dirudi horrela denik. Ekainaren 6an lortutako emaitzen arabera, aurrera doaz gobernu berria osatzeko mantentzen diharduten negoziaketak. Epe laburrean gauzak argituko dira, baina alde zurretik ikusita, datorren legegintzaldia interesgarria izango dela esan genezake. CIU eta EAJren partaidetza gobernuan ikusteko dago, baina posibilitatea den bitartean, harreta sortzen du. CIU eta EAJren alde dagoela argi eta garbi utzi du Felipe Gonzalez presidente ohiak, eta erabaki hau bizi dugun egoera ekonomiko larri honi lotuta dago.

Gobernua eta kamarak martxan jartzen diren bitartean eta gure ekonomia beherantz doan bitartean, uda iritsi zaigu, opor garaia, eta egun horiek ondo aprobetxatzen ahalegindu behar gara, kontu haundiz, noski, irteera edo itzulera operazio horietariko batek harrapatzen gaituenean.

Ane Miren Lizarralde



**JARDUN
Munduko Kopan**

Datorren urriaren 31n korrituko da Donostian Maratoiko Munduko Kopa. Lasterketa hau maratoiaren munduan prestijio haundiena duena da, bi urtez behin korritzen da eta lekuz aldatuz joaten da. Munduko maratoilari onenak izango dira bertan.

1978an korritu zen lehenengoz Donostiako Maratoia. Lehenengo saio haiek oso popularrak izan ziren. Egun batetik bestera jende mordoak ikusi zen gure bide bazterretan entrenatzen. Gauza berria zen eta jolas moduan hartzen genuen. Bazen jendea karrera egunean bizkarrean ardao-zahatoarekin joaten zena ere. Baina laster konturatu ginen 42.195 m egitea ez zela jolas hutsa. Denborarekin atletarik serioenak bakarrik jarraitu dute korritzen eta baezpadakoak utzi egin genuen. Baina aurten, Munduko Kopa dela eta, asko eta asko dira korritu nahi dutenak eta prestatzen hasiak direnak. Jakina da maratoia garantiaz korritzeko hiru edo lau hilabetez behintzat entrenatu beharra dagoela. Eta JARDUNek 20-25 laguneko taldea aterako du nahi duten herriko aintxintxikalari guztiekin. Kontuz ibili daitezela Diego Garzia eta konpañia. Guk ere baditugu eliteko lasterkariak; adibidez Basilio Aranburu azkenengo urtetan 2,40 inguruan dabilena, edota Bixente Pagaldai; 44 urteko angiozartar honek rekord haundia du: Donostian egin diren 15 maratoiak korritu eta amaitu ditu. Gainera beteranoetan Euskal Herriko txapeldun eta bize-txapeldun izan dira; 2,38 du markarik onena, eta hiru ordu azpitik amaitu izan du ia beti.

Juan Martin Elexpuru

BATXILERGO INSTITUTUA

-BERGARA-

**Ikastetxe honetan 93-94 ikasturtean
B.B.B. edo U.B.I. burutu nahi duten
ikasleek uztailaren 1etik 9ra bitartean
egin behar dute matrikula.**

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

I
Z
O
Z
K
I
A
K

i
Z
A
R
H
O
T
Z

I
Z
O
Z
K
I
A
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22



GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34



□ Lisboatik bueltan

Aste honetan bertan izan dugu **BERRIGARA**n Amaia Aranzabal eta losu **Bereziartuak** Lisboara eginiko bidaiaren berri. Gogoratuko duzue, Gabonetan, **Berrigara Kirol Sarien** barne, sarituen artean bidaia bat zozketatu eta aurreko edizioan bezala (orduaz Parisera) Amaia suertatu zen irabazle. Himalayako hotzak ahaztu nahirik, Amaia eta losu oso ondo pasatu omen dute Portugal aldean, eguraldia nahi beste ona izan ez arren. Jadanik datorren urterako *espedizioa* gertatzen hasiko ziren... Hori suertea, hori!!



□ Urrezko eztaiak

Duela 50 urteko ekainaren 17an ezkondu ziren bai Lizarraga Ergoyeman (Nafarroa) **Victoria Senar** eta **Cecilio Andueza**. Hori ospatzeko, pasa den ekainaren 19an familiarteko bazkaria egin zuten Zumelaga Jatetxean. Han izan ziren, besteak beste, beren 4 semeak eta hauek eman dizkieten 4 bilobak eta egun ahaztezin bat igaro zuten elkarrekin. Ahaztezina platinozko eztaiak ospatu arte... **ZORIONAK** Victoria eta Cecilio!!



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14



Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

□ **Urbano berria**

Aurelio Ot urbano gidariak ibilgailu berri bat ekarri berri du. Argazkian duzuen autobusa **Nissan Unicar** modelo da, 62 laguntzako kapazitatea du, Galizian egin diote karrozeria eta 14 milioi pta. balio izan du. Urbano berri honekin, momentuan 3 urbano dira, egunero, Ola-San Juan linea betetzen ar direnak. Argazkian, Aurelio Ot bere urbano dotorearekin. Ea estreinatzerantz animatzen zareten!!



□ **Milagros Gorostola erretiratu**

Asteartean **Milagros Gorostola**ren (argazkian, bigarrena eskuman) omenezko agur bazkaria egin zuten **San Martin de Agirre** ikastetxeko irakasleek Zumelaga Jatetxean. Guztira, 34 urte eman ditu Milagrosek irakaskuntzan Altos Hornos, San Martin ikastetxea eta Helduentzako Heziketa Iraunkorren (EPA) artean. Orain, erretiratzeko ordua heldu zaio eta merezitako omenalditxo eskeini zioten bere lankideek. Beraiek eta ikasleek faltan botako dute, dudarik ez. Gure zorionik beroenak Milagrosentzat.

Zertan dihardute ba?

JUAN MARI GURTUBAI



Orain 40 urte Galdakaon jaio eta Elorrio eta Zornotzako BBVko bulegoetako zuzendari egon ondoren, Bergarako BBVko zuzendari izendatu dute Eibarrera doan Xanti Gabilondoren partez.

BEÑAT AYASTUY



Antzuolar gazte honek larunbatean herritarrentzat jokaturako Uzarragako Txirrindulari Igoera irabazi zuen Iker Gezalaga eta Jon Arangurenen aurretik. Txikietan Xabier Agirre nagusitu zen.

GANBARA

**Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin**

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

**T
B
E
R
N
A**



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

URRATS
Kafetegia
Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

Tantum ergo kantatzen

Plaentxiako gaixo bat Artadi medikuakin tratamantuan zebilen. Baiña, bitxartian, kurandero baten esanak be jarraitzen zebazen.

Orrela gauzak, egun baten eta ustegabian, sartu da Artadi jauna gaixuan etxian ta an nun ikusten daben gure gaixua kuadro guztia keiak beteta, intzientzuaren lurrunak artzen. A ikusixa, zer egin zeban medikuak? Belaunikatzen zan itxura egin eta "Tantum ergo" kantua kantatzen etxetik urten!

Komunera korbatiakin

Goizeko iruretan eldu da Urlixa etxera. Berandu zanez, ixil-ixilik erazten asi da, oian sartzeko andria konturatu barik. Onetan, baiñan, esnatzen da andria:

- Gizon, onek dira etxera etortzeko orduak!

- Ixildu zaitxez, andra. Ni ordu bixan be etxian nago. Komunera jaiki naiz.

- Barkatizu, gizon, baiñan enekixan komunera juateko korbata jazten zendunik.

Pedro Zelaia



Pol-Pol Mendizale Taldeak orain dela 20 bat urte ekin zion kanpaldia antolatzeari. Argozkian, 1973an Altzasu inguruan burututako kanpaldia.

UMEENTZAKO II. KANPALDIA, GUZTIZ ARRAKASTATSUA

Pasa berri diren San Pedro eta San Martzial jaietan, Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatuta, Altzasuko zelaietan Kostaldeko Umeentzako II. Kanpaldia izan da. 400 ume inguru izan dira kanpaldian parte hartu dutenak eta gauzarik nabarmenena Pol-Pol taldeko gaztetxoek izan duten portaera bikaina izan da.

130 gaztetxo eta 30 begirale izan dira gure herriko mendizale taldetik joan direnak eta benetan eredugarria izan da guztiek izan duten portaera.

Antolaketari dagokionez, berriz, ezin hobea: hamarreko bat.

La Voz de España. 1973ko uztailaren 5a. Bikuña.

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerrotekatik bildutako notiziak

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

YAZKI

UME GAZTE Neska eta Mutil

Irizar 3 Ibargarai 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

EGUZBITZA

Erretegia ☎ 76 56 03

SARRERAKOAK:

- Entsalada mistoa
- Arrain-zopa
- Barazki-nahaskia
- Makailo-tortilla
- Txorizo eta urdaiazpikoa

OKELA eta ARRAINAK:

- Txuleta piparrekin
- Saiheskia
- Eskalope berezia
- Legatz frijitua
- Makailo frijitua piparrekin

EDARIAK:

- Sagardoa
- Etxeko ardoa

POSTREA eta KAFAA

GUZTIA: 2.200 pzta.

EGUNEKO MENUA: 900 pzta.

BEREZITASUNAK:

- Arrainak eta okela plantxan
- Ehiza.

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

AGIRREBEÑA


Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezibar



JOSE MARI OREGI

JOSE MARI OREGI irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko argazkian agertzen zen baserriaren izena Agarre-Murinondo zen. Horixe zen erantzun zuzena. ZORIONAK, beraz, JOSE MARI OREGIri erantzun zuzena jartzearren.

Iturri honen aurreko bidea gora segituz, zein da aurkituko dugun lehenengo ermita?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria: San Pedroko dendariek emandako saria.

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

SAN PEDROKO DENDARIAK

**BISITA EZAZU
SAN PEDRO KALEA**

**NAHI DUZUN GUZTIA
AURKITUKO DUZU**

URRUTIRA JOAN GABE

HERRIAN BERTAN



- BILTOKI
- BATZOKIA
- MOZOS FARMAZIA
- ORRAZKI ILEAPAINDEGIA
- GISASOLA BURDINAKI DENDA
- SIASKA
- GARNISH

- ZAPATODOS
- RETEGI OINETAKO DENDA
- LA BERMEANA ARRAINDEGIA
- MARGA MODA
- RADIO BERGARA
- IZARRA ILEAPAINDEGIA

- EROSKI MAZORRIAGA
- OGIZUN OKINDEGIA
- GALLASTEGI JOSTUNDEGIA
- LARRAÑAGA GOZOTEGIA
- IRUDI BITXITEGIA
- SAN PEDRO FRUITA DENDA
- BIONA PENTSUAK

Kirol eskalada Bergaran

Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Mendizale taldeak antolatuta, datorren larunbatean, uztailak 10, Euskadiko Eskalada Txapelketaren bigarren eta azken froga jokatu da Bergaran. Izen-ematea egunean bertan, 9.30etatik 10.15etara egongo da zabalik Labegarrietako kiroldegian.

Floro irabazle

Irrintzi taldeko Eduardo Floro txirrindulariak irabazi zuen larunbatean jokatuako lehen urteko kadeteentzako III. San Martzial Saria. Ritxar de Goñi bergarra laugarren sailkatu zen.

Bergara K.E.ko futbol talde nagusiak 5 fitxaje egingo ditu

Aste honetan jakin izan dugunez, Bergara K.E.ko preferente mailako futbol taldeak 5 fitxaje lotu ditu jadanik hurrengo denboraldiari begira: Juanjo eta Alberto (Eibar Urkotik, 22 urtekoak), Zulueta eibartarra (Mutrikutik, 24 urte), Roberto Irazabal elgetarra (Kilimon, 26 urte) eta Alatz Larrañaga bergarra (Aloña-Mendi, 23 urte). Azken honen anaia Ibon ere taldera itzuliko da, Eibar Urkon egon ondoren. Bajei dagokienez, berriz, Zelaia, Estala, Clemente eta Ritxarrek utzi egingo dute taldea eta Ibarrek ez du jarraitzerik nahi izan.

Beraz, Javi Perez entrenatzaile berriaren agindutara, jokalaria hauek hasiko dute aurrendenboraldia uztailaren 14an: Atano eta Bittor atezainek; Piti, Maki, Lazkano,



Beitia, Oregi eta Etxarrik ez dute elkartean jarraituko.

Zangitu, Arrieta, Zulueta, Azkarate, Elorza II.a eta Juanjo defentsek; Elorza I.a, Alatz eta Ibon Larrañaga, Alberto, Boni, Roberto eta Arana erdilariak eta, Etxaniz, Fran, Gomez de Segura eta Iban aurrelariak.

Uztailaren 30etik abuztuaren 16ra arte atsedena izango dute eta hortik aurrera liga prestatzen hasiko dira.

Bestalde, Jose Luis Beitia, Fernando Oregi eta Iñaki Etxarri entrenatzaileek taldea utziko dute, elkartea eskeini omen dien "tratu eskasa" dela eta: "oinarrizko futbolaren arduradun postua eskaini behar zidatela saldu nahi izan dute eta 2. mailako jubenila entrenatzeko eskaintza egin didate" adierazi dio Beitiak BERRIGARARI.

Olinpiada herrikoiak

Bergarako Olinpiada Batzordeak antolatuta, astelehenean hasi eta uztailaren 24ra arte IV. Olinpiada Herrikoiak jokatu dira Bergaran. Aurreko edizioetan bezala, parte hartzen duten kuadrilek (10ek eman dute izena dagoeneko eta larunbat eguerdian itxiko da izen-ematea) beren terbetasuna kirol ezberdinetan azaldu beharko dute.

Hasteko, astelehenean mahai-jokuak (Plazan), asteartean bolao, toka eta igela (Jubilatueta) eta asteazkenean herri kirolak (Plazan) izango dira. Probak arratsaldeko sei terdietan hasiko dira.



FANCY

GAZTEEN MODA!

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

ARTISAUTZAKO IZOZKIA

GOXO-TOKI

D. Irola, 3 - Tlf. 761235
 Mahuategi, 34 - Tlf. 762337
 BERGARA



San Martzialak

Mahaiak eta aulkiak zeinek jarriko dituen, paella, marmitakoa edo oilaskoa zeinek gertatuko duen... San Martzialetarako prestakizunetan sartuta dago Bergara erdi. Bergarar gehienek maiteen duten jaiegunaren atarian gaude.

Hori dela eta, San Martzialetako argazkia dakargu. Ez da aspaldikoa, hamar urte inguru ditu, ez gehiagorik baina gaur gazte direnek pozik gogoratuko dituzte ume zireneko garai haiek.

Hara zeintzuk diren:

Zutik, ezkerretik eskumara: Maria Larrañaga, Karmen Torres, Maria Larrañaga, Trini Epelde, Lupe Manzano, Bitori Aranzeta, Primitiva Azkarate, Maria Ibarzabal, Petra Agirrezabal eta Maria Alberdi.

Makurtuta: Josu Iñarra, Jon Ander Garitano, Xabier Garitano eta Unai Colinas.

Estepan Plazaola

Argazkia: Jabier Areitio

ETXALAR

KRUASANTEGIA

Gosariak eta
meriendak

Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68

BOLINTXO

*Kirola egiteko
behar den guztia*

Ibargarai 10,
☎ 76 38 32

OILAGORRA

Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

ETXEBIZITZA

Jacan udarako apartamentua alokatzen da.
☎ 76 43 98.

Garaje bikoitza alokairuan Burdñaten.
☎ 76 57 69 / 76 13 23.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 42 10.

Matrimonio logela bateko altzariak salgai.
☎ 76 44 27 (gauetz).

Garajea salgai Ozaetan
☎ 76 56 94.

Pisua salgai San Lorenzo 1ean. ☎ 76 27 35.

Garajea salgai Bolun (1.200.000) ☎ 76 25 38

Eroski gainean 62 m karratuko pisua salgai.
☎ 72 00 66 / 81 23 17.

DENETARIK

Bi mahai eder salgai. Egurrezkoa bat eta kristalezkoa bestea.
☎ 76 35 56.

Ingelesezko klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Master System II konsola salgai. ☎ 76 03 31.

Citroen AX SS-AH salgai. Berritua. ☎ 78 33 09.

Renault Clio 16 V. SS-AM salgai. ☎ 76 25 91.

SUZUKI DR-BIG 74 cc salgai. ☎ 76 50 67.

BMW serie 3 kotxea salgai. Merke. ☎ 76 18 65.

Asteburuetan Madrilera joan-etorria egiteko laguna behar dut ☎ 79 53 12.

Datorren ikasturtean Donostiara joan etorria egunero egiteko autobusa bete nahian gabiltza.
☎ 79 17 72 / 76 51 75.

Kitarra klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 45 16.

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando.
☎ 76 58 93 (Unai).

Ume kotxe bat salgai.
☎ 76 02 00.

MOBYLETTE CADY motor bat salgai.
☎ 76 54 73 (lan orduetan).

Skiak (1.40 zm) eta botak (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Bigarren eskuko bizikleta estatiko bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

Paseozko bizikleta (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etxeko gela bikoitz bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

Motorrean ibiltzeko kasuko integrala erosiko nuke. ☎ 76 10 04.

Uztailean eta abuztuan OHO, BBB eta UBI klaseak emango ditut.
☎ 76 21 52 (Eider).

4 metroko ADRIA karabana salgai. 4-5 pertsonarentzako. Prezio onean. ☎ 76 49 14 (gauetz).

Doberman arrazako txakur emea salgai. Belarriak eta buztana mozturik ditu. 40.000 pza.
☎ 76 57 67.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Renault Super 5 kotxea salgai. BI-AL matrikula.
☎ 76 52 90.

OPEL CORSA City, BI-AK salgai. ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

LANA

O.H.O.ko klaseak emango nituzke uztailean.
☎ 76 19 59.

Bi lagunek propaganda etxez-etxe banatuko lukete. ☎ 76 39 86 (Iban).

Etxeak garbitu edota pertsonak zaindulo nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke.
☎ 76 36 06 (Marisol).

Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. ☎ 70 12 71.

Neska euskaldun bat behar dut etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko.
☎ 76 52 90.

Hildakoak

Eloy Outeiriño Cid
ekainak 18, 80 urte

Lucio Gallastegi Alberdi
ekainak 28, 70 urte

Dorotea Larrañaga Askasibar
ekainak 30, 84 urte

Jaiotakoak

Ion Sarasketa Diez
ekainak 23

Gorka Maria Seco
ekainak 24

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



Uda honetan,



hau da zure marka



JARDUN ESTILOA!!



UZ
HA
MIN
K
P
C